

300 HARITZ

NAIA ARANTZAMENDI

Mahaia kolektiboko hogeita hiru sukaldari euskal nortasuna eztaba-
dan jartzeko batu dira Arantzazun,
identitateaz, lurraldeaz eta euskal
gastronomia garaikideaz hausnar-
tzeko. Hori da bart Donostia Zinemal-
diko Zinemira sailean aurkeztutako
Aitor Aranguren zuzendariaren *300
haritz* lehenengo film luzea dokumen-
talaren abiapuntua.

Aurreko belaunaldiaren erreleboa
hartu, bide berri bat sortu eta kolek-
tiboki norabide berberean arraun
egitea da Mahaiaren helburua. Ha-
la, topaketak, sukaldaritzaren, pro-
duktuaren eta kulturaren arteko lo-
turak jorratzen ditu. Fisikoki batzen
ditu filmak hogeitahiru sukaldariak,
bakoitza bere pentsamendu, gogoeta
eta nahiekin, baina helburu amanko-
mun bati begira, erantzunak bilatzeaz
haratago galderak mahaigaineratuz.

Zuzendariak lokalizazio gutxi, per-
tsonaia asko eta lau elementu uz-
tartzeko, norbanakoa albo batera
utzi eta batasuna pantailaratuz, es-
perientzia murgiltzaile bat eraginez.
Arantzazuko kriptan batzen dira, eta
argi zuten hor egin behar zela. Euskal
kulturaren Arantzazuk duen pisuare-
kin, argi genuen hor izan behar ze-
la; ezinbestekoa iruditzen zitzaigun
nortasunaren gaia lantzeko”, adierazi
du Aranguren zuzendariak.

Bat gehi bat, bat ekinez



Ander Gonzalez sukaldaria, Aitor Aranguren zuzendaria eta Erik Suso ekoizlea.

Mahaiko kide gisa, ondare bat
jaso dutela baieztatzen dute suka-
darek, hala, duela 50 urtekoek ma-
pan kokatu dituztela, baina egungo
egoera zein erronkak bestelakoak
izanik, etorkizunari begiratu eta no-
rabideak zehaztu beharra dagoe-
la. “Erori zaigun ondarea ahal du-
gun modu onenean mantentzea

edo handitzea da gure lana. Egun
abeltzainak, nekazariak... Gure ar-
dura da berriz ere sektore horiei,
gure kultura direnei, arrantzale zein
baserritarrei indarra ematea, gure
etxeak indartsu egoteko. Bestela ez
luke historiak jarraituko”, azaltzen
du Ander Gonzalez Mahaia Kolek-
tiboko kideak.

Narrazioa, oster, lau elementuren
bidez egituratzen da; ura, sua, lurra
eta haizea. Horien bidez euskal gas-
tronomiaren erraiak aztertzen dituzte
hurbilketa bat proposatuz; identitate
bizi gisa, bere ingurunearekin eta ofi-
zioa ulertzeko modu berriekekin eten-
gabeko elkarriketan dagoen nor-
tasun bat bezala. Horrela, euskal

tradizioaren iruditegi bat osatzen da.
“Sukaldeari buruzko dokumental bat
izateaz gain, kulturari, folkloreaki eta
euskal nortasunari buruzko proiektu
bat da”, azaltzen du zuzendariak.

Gai sakonak zein kontzeptu poeti-
koak lantzen dituzte, baina kontzep-
tu horiek lurreratu egiten dituzte nor-
banako gisa sukaldarek eskaintzen
duten berezitasunek; esperientzien
zein keinuen bitartez. Erritmoa arin-
tzeko, zein ikuspegia kulturara zabal-
tzeko, baliabide eraginkorrek bilaka-
tzen dira gonbidatuen bisitak. Hala,
Ana Goitia, Aizpea Goenaga eta Iñigo
Etxezarretaren parte hartzeek arin-
tasuna gehitzen diotelarik dokumen-
talari. “Ez dok hamahiru erreferente
argi gisa dute, eta horrela aipatzen
da dokumentalean ere. Hortaz ezin-
bestekoa iruditzen zitzaigun kulturari
ikur direnen sentipenak jasotzea”, dio
zuzendariak.

Filmaren helburua ez da erantzun-
ak ematea, hausnarketa bat eragitea
baino. “Argi daukaguna da bakarrik
ezin dugula”, zehazten du Gonzalezek.
Dokumentalean Mikel Laboaren hitzak
erabiltzen dituzte Mahaiaren erronkak
laburbiltzeko, dokumentalaren fun-
tsa helburu horretan pauso bat hara-
tago ematea da, ahotsa ematea, za-
baltzea, atzokoarekin bihar berri bat
sortzeko: “Guri dagokigulako eran-
tzun eta forma berriak topatzea, be-
tikoa babesteko”.

GURE KONPROMISOA EUSKARAREKIN ZINEMALDIAN



GARAK eta GAUR8-k
Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean,
euskarazko azpidatziekin proiektatutako
filmak babesten dituzte

**NUESTRO COMPROMISO CON EL
EUSKARA EN EL ZINEMALDIA**

GARA y GAUR8 colaboran con Donostia Zinemaldia
patrocinando las proyecciones de películas
con subtítulos en euskara

GARA **GAUR8**
mila leiho zabalik